ksigune

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK
INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

ksigune

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK
INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

Laburpena

KSIgune tresna estrategikoa da Euskadiko testuinguruan, goi mailako hezkuntzako erakundeen prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta transferentzia esparruetan lankidetza jarduerak aurrera eramateko, betiere kultura eta sormen sektorearen premiekin lotuta. Horrek, aldi berean, Euskadiko hazkunde ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzen du; izan ere, ezagutza eta berrikuntza ekosistema bat sortzen du, harremanak ezarriz eta elikatuz Euskadiko goi mailako hezkuntza ikastegien eta sektorea osatzen duten askotariko eragileen artean.

KSIgune 4 unibertsitatetako eta 5 goi ikastegitako 20 fakultate eta eskolak osatzen dute; aldi berean, horiek 111 prestakuntza gaitasun (graduak, graduondokoak, doktorego programak), 44 ikerketa gaitasun (nagusiki ikertaldeak) eta 5 transferentzia gaitasun (institutuak) biltzen dituzte.

Txostenean zehar, saiatu gara xehero deskribatzen kultura eta sormen industriak (KSI) nola dauden ordezkatuta Euskadiko goi mailako hezkuntzan. Deskribapen hori, era berean, euskal eskola eta fakultateetan dauden gradu, graduondoko, ikertalde eta institutuen arduradunen artean jasotako informazioan oinarritzen da.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan KSIei lotutako prestakuntza eta ikerketa programa ugari dauzkagula, baina transferentzia lanari berariaz edo modu transbertsalean eskainitako organo edo sailen aukera murritzagoa dela. Horregatik, oso garrantzitsua da transferentziaren aldeko apustua egitea eta hori babestea, horretarako KSIguneren moduko programak sustatuz, baina baita jarduerak eta sailak egituratuz ere, horren kudeaketa informala gainditzeko.

Gainera, diziplinen/azpisektoreen arteko berezitasunak aipatu behar dira; izan ere, Euskadiko goi mailako hezkuntzak prestakuntza, ikerketa eta transferentzia bultzatzen ditu KSIei dagozkien azpisektore guztietan. Bereziki, musika, hizkuntza industriak, goi gastronomia eta diseinua sustatzen ditu.

Era berean, komeni da azpimarratzea prestakuntza eta ikerketa modu heterogeneoan azpimarratzen direla balio katean; izan ere, prestakuntza eta ikerketa gaitasun gehienak KSIen hezkuntza arlokoak dira. Katearen gainerako faseak modu banatuagoan azpimarratzen dituzte; horien artean sorkuntza nabarmentzen da, eta, neurri txikiagoan, ekoizpena

LEINN Arts, Mondragon Unibertsitatea

IED Kunsthal Bilbao

eta edizioa. Prestakuntza programek eta ikerketa programek gutxien lehenesten dituzten balio katearen faseak banaketa, kontserbazioa eta kudeaketa dira.

Berrikuntzari dagokionez, programen heren batek, gutxi gorabehera, lehentasun handia ematen diola adierazten du. Zehazki, programen autopertzepzioari dagokionez, musikarekin eta diseinuarekin lotutako programetan ageri da gehien berrikuntza; horien ondoren, modarekin, bideo jokoekin eta hizkuntza industriekin lotutako programak ageri dira. Berrikuntza tipologiak askotarikoak dira, baina orekatuta daude. Esate baterako, programen % 43k gizarte berrikuntza mota bat sustatzen dute; aldiz, programen % 52k diote sektoreko enpresen berrikuntza bultzatzen dihardutela, edo diseinuaren, marketinaren eta bideo jokoen azpisektoreek beste sektore batzuekin duten harremana sustatzen dutela, horietan berrikuntza bultzatzeko.

Unibertsitatean dauden gaitasunek ere, bereziki kultura eta sormen testuinguru horretan, jarduera publiko handia dute; jarduera hori, batzuetan, unibertsitate eremura mugatzen da. Erronka horri gehitu behar zaio goi mailako hezkuntzak babestutako edo zuzenean bultzatutako ekoizpen zientifiko, kultural eta artistikoaren zati baten balioa nabarmendu beharra.

Unibertsitatean dauden gaitasunek ere, bereziki kultura eta sormen testuinguru horretan, jarduera publiko handia dute; jarduera hori, batzuetan, unibertsitate eremura mugatzen da. Erronka horri gehitu behar zaio goi mailako hezkuntzak babestutako edo zuzenean bultzatutako ekoizpen zientifiko, kultural eta artistikoaren zati baten balioa nabarmendu beharra.

Jarraian datozen orrialdeetan sakonago aztertzen dira gai horiek eta horiekin lotutako beste batzuk, eta, era berean, KSIgune ekimenaren egokitasuna nabarmentzen da. Ekimen horren bidez, agerian jarri nahi dira gure goi mailako hezkuntzan kultura eta sormenarekin lotuta dauden gaitasun ugariak, eta, ondoren, modu estrategikoan lotu hain heterogeneoa den sektore honen erakunde esparruarekin eta enpresa eta elkarte sarearekin. KSIgunek, azken batean, agerian utzi nahi du kulturaren eta sormenaren euskal ekosistemako lotuneen aberastasunaren balioa, eta, gainera, haien arteko eta beste sektore batzuekiko lankidetza bultzatu eta haien gizarte eragina indartu.

ksigune

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK NOLA DAUDEN ORDEZKATUTA GOI MAILAKO EUSKAL HEZKUNTZAN.

Kultura eta sormen sektoreekin lotutako goi mailako hezkuntzako gaitasunen identifikazio lanaren ondorioak.

Sarrera

Sormen ekonomia honela definitu da: sormenaren, kulturaren, ekonomiaren eta teknologiaren batura, eta NBEk hau dio hari buruz: *"Kontzeptu ebolutibo bat da, hazkunde ekonomikoa eta garapena eragiten duten sormen abantailetan oinarritua, enplegua eta esportazioak sortzen dituena, eta, aldi berean, gizarteratzea, kultura aniztasuna eta giza garapena sustatzen dituena"*. Jarduera Ekonomikoen Direktorioko (JED) azken datuen arabera, EAEko kultura eta sormen industrien sektoreak[1] 16.122 enpresa ditu guztira; horietatik % 40,1 kultura arlokoak dira (6.462 enpresa) eta % 59,9 sormen arlokoak (9.660 enpresa). KSIen sektoreak 48.161 pertsona zituen lanean 2019an, eta jolas eta kultura jarduerek 94ko BEGa zuten (EB 27=100) Euskadiko ekoizpen espezializazioari dagokionez. Tokiko testuinguru horrekin bat, industria horrek gero eta proiekzio handiagoa du Europan eta apustu sendoa egiten du hor, RIS3 estrategiaren bidez. Errealitate horretatik abiatuta, oso garrantzitsua da ikerketako eta irakaskuntzako aberastasunari eustea, bai eta aberastasun hori areagotzea ere, horrela, sortutako berrikuntza eta garapenak Euskadiko kultura eta sormen industrien sektorean (KSS) eragina izan dezan.

Gero eta globalizatuago dagoen egoera honetan, gero eta eragile publiko, pribatu eta sozial gehiagok aurre egin behar diote lankidetza politikak eta ekintzak ezartzeko beharrari, zeinak behar den bezala bideratuak egongo diren espezializazio adimenduneko estrategiak lortzera eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan balioa sortzera eta gizarteari transferitzera. Erronka hori oinarrizko baldintza da Europako eskualdeetan, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, garapen sozial eta ekonomikoko eredu bideragarri eta jasangarriak lortzeko. Erronka horren aurrean, goi mailako hezkuntzak erabateko garrantzia du gizartean. Hain zuzen ere, unibertsitateak dira EAEko I+G sistemaren funtsezko eragileetako bat. Hala, unibertsitateak I+Gko inbertsioaren % 17,4 hartu zuen.

Inpaktu sozial eta ekonomiko horren eragileen artean, unibertsitatearen bi zeregin klasikoei (ikerketa eta irakaskuntza) beste bat, hirugarrena,

[1] Kultura, arte edo ondare arloko ondasunak, zerbitzuak eta jarduerak ekoiztea edo erreproduzitzea, sustatzea, hedatzea eta/edo merkaturatzea helburu nagusi duten jarduera antolatuko sektoreak (ikus 4. eranskina: Glosarioa)

[2] Produktu edo prozesu (edo bien konbinazioa) berria edo hobetua, unitatearen aurreko (lehenagoko) produktu edo prozesuetatik nabarmen bereizten dena eta unitatearen erabiltzaile potentzialen eskura jarri dena (produktua) edo unitateak erabileran jarri duena (prozesua) (ikus 4. eranskina: Glosarioa)

[3] Bilbo (2019ko abenduaren 17a). Euskadik I+Gko inbertsio marka hautsi zuen iaz: 1.423 milioi. Deia. www.deia.eus webgunetik berreskuratua

UPV/EHU, Gizarte Zientzien eta Komunikazioa Fakultatea

gehitu zaie XXI. mende honetan: ezagutzaren transferentzia. Estatuaren kasuan, deigarria da ekoizpen zientifikoan munduko hamaikagarren potentzia izanda, transferentziari dagokionez nazioarteko patente guztien % 1 inguru baino ez sortzea. Egoera hori, ñabardurekin eta batez bestekoarekin, gure hurbileko errealitatera ekar daiteke, hau da, Euskadira.

Arazo horri eskualdeetako, nazioetako eta nazioarteko agenda politikoetan heltzen ari zaio gaur egun. Horren adibide paradigmatiko bat da "Europa Ortzimuga", Ikerketa eta Berrikuntzarako Esparru Programa, berrikuntza ardatz duena honako erronka sozial hauei erantzuteko tresna gisa: energia eta ingurumen trantsizioek, trantsizio demografiko sozialek eta trantsizio teknologiko digitalek dakartzatenak. Europa mailan ere, eta gure eskualdean inplementatuta dagoena, nabarmentzekoa da espezializazio adimenduneko RIS3 estrategia, zeinak aukera nitxo gisa ezartzen baititu kultura eta sormen industriak, besteak beste, enpresa eta gizarte sarearen eskaerekin bat datorren ikertze indarra bideratzeko.

Hala, KSIgune sortu da unibertsitateetan, goi mailako zentroetan eta ikerketa zentroetan kultura eta sormen industrien arloan sortutako ezagutzaren transferentziari eta aplikazioari irtenbidea emateko, eta akademiako, administrazioko eta sektoreko unitate operatiboek osatutako ekosistema gisa eratu da.

Horretarako, lehenengo urratsa izan da Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren prestakuntza eta ikerketa eskaintza zehatz-mehatz identifikatzea, eta, ondoren, gradu, graduondoko, doktorego programa, ikertalde eta institutu guztien –gaitasun deitzen ditugun programen multzoa osatzen dutenak– egungo egoeran sakontzea, arduradun guztiek eta ikastegietako zuzendaritzek gogoeta partekatua eginez. Eskerrak eman nahi dizkiegu lehen esplorazio azterlan honetan parte hartzeagatik, eta espero dugu azterlana gure goi mailako hezkuntzaren, kultura eta sormen industrien eta gure lurraldearen beharrei erantzungo dieten ekintzen hasiera izatea.

[4] Hezkuntza hori euskal hezkuntza sistemaren parte da, eta hor sartzen dira unibertsitateko irakaskuntza, goi mailako arte irakaskuntzak, goi mailako lanbide heziketa, arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako lanbide irakaskuntzak eta goi mailako kirol irakaskuntzak.

Parte hartzen duten ikastegi eta unibertsitateak

KSIgunek euskal unibertsitate guztien eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateen partaidetza du, bai eta KSIlekin lotutako goi mailako hezkuntzako ikastegi guztiena ere:

- Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Mondragon Unibertsitatea
- Tecnun-Nafarroako Unibersitatea
- IDarte, Euskadiko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola
- Dantzerti, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola
- Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
- IED Kunsthal
- Digipen Institute of Technology, Europe-Bilbao
- Basque Culinary Center

Honako eskola, fakultate eta ikastegien bitartez:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
- LETREN FAKULTATEA / FACULTAD DE LETRAS
- ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA / ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA
- GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA / FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN
- ARTE EDERREN FAKULTATEA / FACULTAD DE BELLAS ARTES
- BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO
- GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA DE GIPUZKOA
- INFORMATIKA FAKULTATEA / FACULTAD DE INFORMÁTICA
- FARMAZIA FAKULTATEA / FACULTAD DE FARMACIA

Deusto – Facultad de Ciencias Sociales y Humanas / Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea / Faculty of Social and Human Sciences

Deusto – Facultad de Ingeniería / Ingeniaritzako Fakultatea

Mondragon Unibertsitatea – Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación

Mondragon Unibertsitatea – Goi Eskola Politeknikoa / Escuela Politécnica Superior

Mondragon Unibertsitatea – Facultad de Empresariales

tecnun Universidad de Navarra

I·D arte – Arte eta Goimailako Diseinu Eskola / Escuela de Arte y Superior de Diseño

DANTZERTI – Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola / Escuela Superior de Arte Dramático y Danza de Euskadi

musikene

KUNSTHAL – IED Kunsthal Bilbao Centro Superior de Diseño

DigiPen Institute of Technology Europe - Bilbao

basque culinary center

Lan eta alderaketa taldea

- Euskampus Fundazioa
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sailburuordetza
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza
- KSIen gidaritza taldea, 2. lantaldea (KSIko I+G+B)

Alderaketan parte hartu duten Zentruak:

DigiPen Institute of Tecnology

- Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatea
- Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatea
- Deustuko Unibertsitateko Zientzia Fakultatea
- Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatea
- Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- IDarte, Euskadiko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola
- Dantzerti, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola
- IED Kunsthal
- Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
- Digipen Institute of Technology, Europe-Bilbao
- Basque Culinary Center, Mondragon Unibertsitatea

Aurkibidea

1 Aurkezpena / *p. 12*

2 Emaitzak / *p. 20*

/ Kultura eta sormen industriak nola dauden ordezkatuta Goi Mailako Euskal Hezkuntzan

/ Kultura eta sormen industriekin lotutako goi mailako hezkuntzako gaitasunei buruzko datu ekonomikoak (2019)

/ Nazioartekotzea eta eleaniztasuna.

/ Lantaldeak eta generoa

/ IBerrikuntza eta transferentzia

3 Gaur egungo erronkak / *p. 45*

Eranskinak / *p. 49*

1. Presentzia publikoa (komunikazioa)
2. Ekipamenduak
3. Gaitasunen banakatzea
4. Glosarioa

Taulen eta irudien aurkibidea

IRUDIAK

1. irudia. Espezializazio adimenduneko RIS3 estrategiaren 2020-2024rako helburuak, "Kultura eta sormen industriak" aukera nitxoan "
2. irudia. KSIguneko ekosistemak, jarduera esparruak eta estrategia
3. irudia. Goi Mailako Hezkuntzako programen banaketa, xedearen arabera
4. irudia. Prestakuntzaren banaketa, tipologiaren arabera
5. irudia. Unibertsitate edo goi mailako ikastegi bakoitza nola dagoen ordezkatuta KSIko prestakuntza osoan
6. irudia. Kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta Goi Mailako Euskal Hezkuntzan
7. irudia. Kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta, lurralde historikoaren arabera
8. irudia. Programen banaketa, KSIen balio kateetan duten eraginaren arabera
9. irudia. Programen banaketa, ZTBP 2030 planak nabarmendutako trantsizio globaletan duten eraginaren arabera
10. irudia. Finantzaketa bideen banaketa
11. irudia. Konparazioa hizkuntzaren erabileran
12. irudia. Hizkuntzaren erabilera lan ingurunean
13. irudia. Hizkuntzaren erabilera ekoizpen zientifiko eta akademikoan
14. irudia. Prestakuntza, ikerketa eta transferentzia nola dauden ordezkatuta sexuaren arabera
15. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa prestakuntza eta ikerketa proposamenetan
16. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa metodologietan
17. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa lan ildoetan
18. irudia. Gaitasunek berrikuntza lehenestea
19. irudia. KSIetan gaitasunek berrikuntzan egiten duten ekarpen mota

TAULAK

1. taula. Prestakuntzaren banaketa, unibertsitatearen edo goi mailako zentroaren arabera
2. taula. Kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan
3. taula. Balio katearen faseak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan
4. taula. Trantsizioak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan
5. taula. Nazioarteko sareetan parte hartzearen alderaztea
6. taula. Hizkuntzaren erabilera lan ingurunean
7. taula. Hizkuntzaren erabilera ekoizpen zientifiko eta akademikoan
8. taula. Lantaldeen osaera
9. taula. Berrikuntza arloak Goi Mailako Euskal Hezkuntzatik abiatuta
10. taula. Gaitasunek KSIetan berrikuntzari egiten dioten ekarpena, eraginaren eta lehentasunaren arabera
11. taula. Gaitasunen banaketa, jabetza intelektualarekin lotutako transferentzia formulen arabera
12. taula. Goi Mailako Euskal Hezkuntzako ekipamendu bereziak guztira, KSIen eremuari dagokionez
13. Taula. Goi Mailako Euskal Hezkuntzako gaitasunak

IRUDIAK

1. irudia. KSIguneren webgunea

1

Aurkezpena

KSIguneren helburuak

KSIgunek Kultura eta Sormen Industrien Jakintza Gunea[5] sortu nahi du, tresna estrategiko gisa, sektorearen premiei lotutako prestakuntzaren, ikerketaren, berrikuntzaren eta transferentziaren arloetan jarduerak egiteko.

Líneas de trabajo principales:

- **Lurraldearekiko konpromisoa:** Ezagutza eta berrikuntza ekosistema bat sortuz, hazkunde ekonomikoari ekarpena egitea, goi mailako hezkuntzaren eta Kultura eta Sormen Industriak askotarikoaren arteko harremanak ezarriz eta elikatuz, espezializazio adimendunaren paradigmaren pean.
- **Goi mailako hezkuntza, berrikuntzarako sustapen plataforma gisa:** Berrikuntzarako aukerak sortzea, elkarguneak sortuz eta topaguneak diseinatuz eta hedatuz.

KSIgune programaren azken helburua Goi Mailako Hezkuntza Sistemak euskal kultura eta sormen sektorean duen eragina maximizatzea denez, honako helburu nagusi hauek ezarri dira:

1. ***Euskadiko unibertsitateetako ikertaldeen arteko lankidetza sustatzea, enpresa eta erakunde garrantzitsuenekin batera. Horrek honetarako balio behar du:***

a. Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko enpresen eta erakundeen beharrei erantzungo dieten ikerketa aukera berriak identifikatzeko eta lehenesteko.

b. Kultura eta sormen industrien ekosistemaren parte diren jakintza arloetako diziplina ugariak aktibatzeko eta balioesteko.

c. Lehendik dagoen ikerketari balioa gehitzeko, eta nazioarteko graduondoko ikerketa eta prestakuntza proiektuak indartzeko.

d. Harreman testuinguru natural bat sortzeko enpresentzat, erakundeentzat eta unibertsitatearentzat, bertan elkar daitezen eta lankidetzan trabarik gabe jardun dezaten, eta, hala, pixkanaka komunitate bat sortzeko bidea urratu ahal izateko.

[5] Ezagutza eta berrikuntza ekosistema moduan jokatuz, hainbat eragileren arteko sorkuntza da haren printzipio sortzailea, eta jarduera kooperatiboen bidez erronka sozialei eta globalei erantzuna ematea du helburu

2. *Unibertsitatearen eta euskal erakunde publikoen, eta kultura eta sormen sektoreko enpresen eta erakundeen arteko harreman testuinguru bat sortzea. Horrek honetarako balio behar du:*

a. Administrazioarekin koordinatzeko, KSIen arloko I+G+B politikak sustatu ahal izateko.

b. Kultura eta sormen industriekin modu batean edo bestean zerikusia duten gobernantza arlo guztien barruko eta erakundearteko erantzunkidetasuna sustatzeko.

c. Herrialde beharrei erantzuteko berrikuntzaren eta espezializazio adimendunaren bidetik, eta dibertsifikazio sektorialaren bektore izateko.

d. Kulturaren dimentsio sozialaren ulermenean sakontzeko eta sortutako ezagutza gizarteari zabaltzen laguntzeko

3. *KSIen balizko EIT KSI batera (hau da, KSIen Ezagutza eta Berrikuntza Komunitate batera) estrapolatzeko modukoak diren dinamikak ezartzen laguntzea, horrelakoetan Euskadik modu esanguratsuan parte hartzeko asmoa baitu. Horrek honetarako balio behar du:*

a. KSIen sektorearen egituraketan aurrera egiteko eta nazioarteko proiekzioa sustatzeko, erreferentziazko nazioarteko sareetara konektatutako tokiko nodo bat garatuz.

b. KSIen lehiakortasun maila handitzeko, bai eta aberastasuna eta ongizatea sortzeko gaitasuna ere.

c. Lehen lankidetzei laguntza emateko (harreman hasi berriak eta gorabidean dauden proiektuak, bikaintasun, nazioartekotze eta transferentzia potentzial handikoak).

d. Egitura sendo eta profesionalizatuak sortzeko, eta talentua eta giza kapitala sustatzeko kultura eta sormen sektorean. humano en el sector cultural y creativo.

[6] Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Institutua

[7] EITk bultzatutako ezagutza eta berrikuntza komunitateak

RIS3 testuingurua eta Jakintza Gunea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren bultzadarekin, Euskampus Fundazioari Kultura eta Sormen Industrien (KSI) Unibertsitateko Jakintza Gunea ezartzeko lan egitea planteatu zaio, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin eta RIS3 Euskadi Sortzailea pilotaje taldearekin lankidetza estuan arituz. Jakintza gune hori RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin bat etorriko da, eta honako helburu hauekin bat egingo du (2020-2024):

RIS3 EUSKADI SORTZAILEA

bere 3 ildoekin/lantaldeekin: partaidetza publiko-pribatua duten lantalde espezifikoak, proiektuen alderaketa eta jarraipena egiteko

- GT1-Basque District of Culture and Creativity BDCC
- GT2- I+D+i kultura eta sormen sektorean
- GT3- Cross Fertilization: RIS3 pilotaje taldeen gurutzaketa: KSI/RIS3 ELIKADURA

I+G+B kontzeptualizazioaren garapena Euskadiko kultura eta sormen sektorean

KSI jakintza gunea

BDCC (Basque District of Culture and Creativity) **Euskal Kultura eta Sorkuntza Barrutia abian jartzea eta garatzea**

Euskadik nazioartean kultura eta sormen sareen esparruan duen **presentzia sustatzea**

1. irudia. Espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi Sortzailea estrategiaren 2020-2024rako helburuak.

Lan hori hiru ildotan garatzen ari gara:

1. Kultura eta sormen sektoreetan I+G+B kontzeptualizatzen laguntzea, Tecnaliarekin eta Kulturaren Euskal Behatokiarekin lankidetzan.

2. KSIen Jakintza Gunea aktibatzea, euroeskualdeko unibertsitateen eta kultura eta sormen sektoreko erakundeen arteko konexioak sustatzeko eta artikulatzeko epe ertainean, KSIen RIS3 aukera nitxoa garatzen laguntzeko.

3. Martxan jartzea, Euskadi EITren KSIentzako KIC deialdirako (2021ko azken hiruhilekoan) koka dadin.

[8] KSIekin zerikusia duten zenbait eragile publiko eta pribaturen ordezkari taldea, sektorearen estrategiaren ezarpenean parte hartzeko zeregina bere gain hartzen duena, Eusko Jaurlaritza buru dela.

"KSIen Jakintza Gunea" izeneko 2. ildoa maila operatiboan Euskampus Fundazioak gidatzen du, prestakuntza, ikerketa eta transferentzia gaitasunen mapa sortzeko helburu nagusiarekin. Mapa hori, kultura eta sormen industriei dagokienez, Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren errealitate xehekatua islatzen saiatzen da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera sektorearen beharrei lotutako prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta transferentzia arloetan jarduerak egiteko tresna estrategiko gisa balio izateko.



2. irudia. KSIguneko ekosistemak, jarduera esparruak eta estrategia

[9] Eremu jakin bati dagozkion graduak, graduondokoak, ikertaldeak, institutuak, katedrak eta ekipamenduak; adibidez, KSIak

2020ko metodologia eta jarduerak

1

2020an, Goi Mailako Euskal Hezkuntzako KSIen prestakuntza, ikerketa eta transferentzia eskaintza osoa identifikatu da. Identifikazio horrek taxonomia bat sortzea ekarri du, sektorearekin alderaketa eginez (KSI pilotaje taldearen bidez) eta Kulturaren Euskal Behatokiak ezartzen dituen jarraibideen arabera. Gero mapaketa egiteko erabili diren sailkapen printzipioak hauek dira:

KSS BALIO KATEA	KULTURA SEKTOREAK	SORMEN SEKTOREAK	GAITASUNAK	ZTBP 2030KO INDAR ERALDATZAILEAK
· Sorkuntza · Ekoizpena eta edizioa · Banaketa, merkaturatzea eta zabalkundea · Kontserbazioa · Hezkuntza · Kudeaketa eta erregulazioa	· Arte eszenikoak · Ikusizko arteak · Ikus-entzunekoa eta multimedia · Liburua eta prentsa · Musika · Kultura ondarea	· Arkitektura · Publizitatea · Bideo jokoak · Diseinua · Gastronomia · Hizkuntzaren industriak · Moda · Artisautza	· Prestakuntzakoak · Ikerketakoak · Transferentziakoak	· Digitala + Teknologia · Energia + Ingurumena · Gizartea + Demografia
Kulturaren industrietan balio katearen funtzio guztiak hartzen dira kontuan, baina sormen industriek sorkuntza baino ez dute biltzen, hots, balio erantsia sortzen duen sormen jarduera. "Hala, arkitekturak arkitektura zerbitzuak hartzen ditu kontuan, ez eraikuntza; modak diseinua eta patroigintza biltzen ditu, ez fabrikazio eta merkataritza osoa" .			· **Prestakuntzakoak:** Graduak, graduondoko edo masterrak, doktorego programak. · **Ikerketakoak:** Beste formula batzuen arabera egituratutako ikertaldeak edo ikerketa arloak. · **Transferentziakoak:** Beste formula batzuen arabera egituratutako institutuak, katedrak edo transferentzia arloak.	2030 Agendan zehaztutakoak eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean nabarmendutako trantsizioak. Hauek dira: nabarmendutako trantsizioak. Hauek dira.

[10] Sailkapen zehatzaren tipologia

[11] Kulturaren Euskal Behatokia (2018). Kontzeptuak zehaztea eta Euskadiko KSletako sektoreen definizioa. Eusko Jaurlaritza

2

Taxonomia egin, eta gure Goi Mailako Hezkuntzako graduak, graduondokoak, ikertaldeak eta transferentzia egiturak identifikatzeko erabili ondoren, proiektua hedatzeko prozesu indibidualizatu bat egin da KSIen esparruan inplikatutako fakultate eta zentroetako dekano eta zuzendariekin, eta, aldi berean, ikastegi horietan identifikatutako gaitasunak kontrastatu dira.

Horrela, gure Goi Mailako Hezkuntzak kultura eta sormen industrietan dituen gaitasunen mapa oso bat sortu da (graduak, graduondokoak, ikertaldeak, institutuak, katedrak). **Hauek identifikatu dira: 20 ikastegi, 111 prestakuntza gaitasun, 44 ikerketa gaitasun eta 5 transferentzia gaitasun.** (KSIgune webgunean ikus daiteke mapa, Gaitasunen Mapa atalean).



TECNUN, Nafarroako Unibersitateko Ingenieritza Fakultatea

www.ksigune.eus

3

Mapa sortu ondoren, ikerketa, berrikuntza eta transferentzia arloekin lotura zuzena duen informazio espezifikoa bildu da, identifikatutako gaitasun guztien parte hartzearekin eta laguntzarekin. Erabilitako galdetegiak eta proiektuaren helburuak KSIguneko zentroekin kontrastatu ziren, KSIekin zuzeneko harremana zutelako edo lotura handia zuten lan arlo espezifikoak zituztelako.

Gero, galdetegiak bidali zitzaizkien identifikatutako gaitasunen arduradun guztiei. Horretarako, proiekturako neurrira sortutako tresna digital elebidun bat erabili zen, hurrengo urteetako eguneraketetan datu bilketari egonkortasuna emateko gai izango litzatekeena.

Guztira 109 galdetegi osatu ziren (Goi Mailako Euskal Hezkuntzako gaitasun guztien % 70) 2020ko bigarren seihilekoan, eta galdetegietan lortutako datuak ustiatu ziren. Jarraian, emaitzak aurkeztuko ditugu, Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren errealitatea erakuste aldera, euskal kultura eta sormen industriako azpisektoreak kontuan hartuta.

IED Kunsthal

2

Emaitzak

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK NOLA DAUDEN ORDEZKATUTA GOI MAILAKO EUSKAL HEZKUNTZAN

Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren zer gaitasunetatik heltzen zaie kultura eta sormen sektoreei?

Galdera horri erantzuteko, unibertsitatearen hiru zeregin nagusietatik abiatu gara: Irakaskuntza (prestakuntza), ikerketa eta transferentzia.

Horrela, guztira 160 programa identifikatu ditugu Goi Mailako Hezkuntza osoan, 20 ikastegitan ordezkatuta, honela banatuta:

- **Prestakuntza**
  graduak edo baliokideak, graduondokoak, doktorego programak 111
- **Ikerketa**
  ikertaldeak 44
- **Transferentzia**
  institutuak eta katedrak 5

Hurrengo orrialdeetan, prestakuntza, ikerketa eta transferentzia unibertsitateen edo, hala badagokio, goi mailako ikastegien arabera nola banatzen den sakonduko dugu, tipologia kontuan hartuta, gradua edo graduaren baliokidea, masterrak eta espezializazioak, doktorego programak, ikerketa taldeak, institutuak, katedrak.



3. irudia. Goi Mailako Hezkuntzako programen banaketa, xedearen arabera

Goi mailako prestakuntzaren zein formulatatik heltzen zaie kultura eta sormen industriei?

Jarraian, prestakuntzak unibertsitatearen edo, hala badagokio, goi mailako ikastegiaren arabera duen banaketaren xehetasuna banakatu da, tipologia kontuan hartuta (gradua edo graduaren baliokidea, masterrak eta espezializazioak eta doktorego programak):

	Graduak	Masterrak eta espezializazioak	Doktorego programak	Guztira	%
UPV/EHU	23	25	7	55	% 49,6
Mondragon Unibertsitatea	6	9	1	16	% 14,4
Musikene	5	11	-	16	% 14,4
Deustu	10	4	1	15	% 13,5
Digipen	2	-	-	2	% 1,8
KUNSTHAL	2	-	-	2	% 1,8
EASD IDarte	2	-	-	2	% 1,8
Dantzerti	2	-	-	2	% 1,8
Nafarroako Unibertsitatea	1	-	-	1	% 0,9
GUZTIRA	**53**	**49**	**9**	**111**	
%	**% 47,7**	**% 44**	**% 8,3**		100%

1. taula. Prestakuntzaren banaketa, unibertsitatearen edo goi mailako

Ikus daitekeenez, graduak masterrak baino ugariagoak dira. Ezaugarri hori aldatu egiten da Mondragon Unibertsitatearen, Musikeneren eta UPV/EHUren kasu partikularretan. KSIekin lotutako doktorego programak gutxi dira, sektoreak duen aniztasuna kontuan hartuta. Hain zuzen, aniztasun hori kontuan hartuta, pentsa daiteke doktorego programa horiek nahiko irekiak direla, hau da, ez hain espezializatuak edo espezifikoak, eta gai direla diziplinen aniztasun handiagoa integratzeko. Doktorego programak Euskal Herriko Unibertsitateak (7), Deustuko Unibertsitateak (1) eta Mondragon Unibertsitateak (1) soilik dauzkate. Jarraian, prestakuntza tipologiaren arabera nola banatuta dagoen erakusten da (graduak, masterrak eta espezializazioak eta doktorego programak)

(4. irudia), bai eta unibertsitate edo ikastegi bakoitzak kultura eta sormen industriekin lotutako prestakuntzan duen pisua ere (5. irudia). Musikenen izan ezik, ikus daiteke sektore anitzekin lotutako unibertsitateek KSIekin lotutako gaitasun gehiago dituztela kultura eta sormen eremu jakinen batean espezializatutako unibertsitateek/ikastegiek –txikiagoak, bestalde– baino.

UPV/EHU, Farmazia Fakultatea



4. irudia. Prestakuntzaren banaketa, tipologiaren arabera



5. irudia. Unibertsitate edo goi mailako ikastegi bakoitza nola dagoen ordezkatuta KSIko prestakuntza osoan

Zer formula erabiltzen dira goi mailako ikerketan kultura eta sormen industriak lantzeko?

Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren testuinguruan, 44 ikerketa gaitasun bultzatzen dira guztira.

- Euskal Herriko Unibertsitatea 35
- Deustuko Unibertsitatea..... 6
- Musikene 2
- Mondragon Unibertsitatea 1

Musikene da kultura eta sormen industrien (musika) esparru batean bete-betean diharduen zentro bakarra. Gaineratu dezakegu Musikenek ikerketa jarduera ez duela ikertaldeen bidez bideratzen, "ikerketa arloak" deritzenetik abiatuta baizik. Gainerako unibertsitateek eta goi mailako ikastegiek ez dute ikerketa jarduerarik ageri.

Zer formula erabiltzen dira transferentzian kultura eta sormen industriak lantzeko?

Esparru horretan, ikerketa eta prestakuntza gaitasunekin alderatuta, transferentzia gaitasunak Musikenek eta Deustuko Unibertsitateak baino ez dauzkate. Ideala ez izan arren, hori da ohikoena jakintza arlo guztietan; izan ere, nahiz eta transferentzia unibertsitatearen zeregintzat hartzen den, ez dago ikastegi gehienen funtzionamendu dinamiketan ikerketa edo prestakuntza dauden bezain integratuta (horregatik, "hirugarren misioa" esan ohi zaio). Transferentziaren presentzia murritz horren arrazoia zeregin horietan diharduten sailen izaera transbertsala da. Hemen identifikatu direnak ikasgelak, institutuak, katedrak eta "beste batzuk" dira, batez ere kultura eta sormen industrietara bideratuta daudenak, eta, ikusten dugunez, presentzia txikia dute goi mailako hezkuntzaren sarean. Hala ere, horrek ez du esan nahi transferentzia jarduerei ez zaiela heltzen ari modu transbertsalean jarduteko bokazioa duten beste sail batzuetatik, baina erabat harrigarria da kultura edo sormen arloan diharduten ikastegiek sail edo arlo horiek aipatu ez izana. Hori galdera egiteko eta ulertzeko moduaren ondorio izan daiteke, baina, era berean, "informalki" –horretarako aurrez ezarritako egiturarik gabe– egiten den transferentzia jarduera bat ere adieraz dezake.

Nola daude ordezkatuta goi mailako hezkuntzan kultura eta sormen industrietako azpisektoreak?

Hurrengo grafikoan, kultura eta sormen industriak osatzen dituzten azpisektoreek –Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak jaso dituen eran– Goi Mailako Euskal Hezkuntzan duten pisua ikus daiteke. Gaitasunek gehien hautatzen dituzten azpisektoreak hauek dira: Kultura ondarea (% 18), ikusizko arteak, ikus-entzunezkoak, eta multimedia eta musika (azken hiru horiek % 10).



6. irudia. Kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta Goi Mailako Euskal Hezkuntzan

Azpisektore horiek badira ere goi mailako hezkuntzako programetan gehien agertzen direnak, ez datoz bat zuzenean sektorerik lehenetsienekin, hau da, gaitasunek gaiaren arabera lerrokatzean lehen aukera gisa hautatu dituztenekin. Alderdi horretan sakonduz, musika da arlo horretara eskainitako gradu eta graduondoko kopuru handiena duen azpisektorea; horietatik gehienak Musikenek eskaintzen ditu. Ondoren datoz hizkuntzaren industriak, goi gastronomia eta diseinua (Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak eta Letren Fakultateak eta Basque Culinary Center-ek eskainiak) eta, azkenik, ID Arte, IED Kunsthal eta Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza. Beraz, ikusten dugu musikarekin, hizkuntzarekin eta diseinuarekin lerrokatutako gaitasunak azpisektore horietan nagusiki espezializatzen diren ikastetxe jakin batzuetan biltzen direla. Zehaztu beharra dago gaiaren araberako lerrokatzeak diziplinei edo azpisektoreei bakarrik egiten diela erreferentzia, eta, beraz, gaitasunetako bakoitzean, prestakuntzak edo ikerketak ez duela zertan gai beretara zuzenduta egon. Besterik gabe, lan diziplina edo azpisektore berean kokatzen dira.

Beste azpisektore batzuk, hala nola ikusizko arteak, ikus-entzunezkoak eta multimedia, eta arkitektura, programa gehiagok jorratzen dituzte, baina oraindik ere ikastegi jakin batzuetan bakarrik biltzen dira. Ondarea, liburua eta prentsa, bideo jokoak, arte eszenikoak eta publizitatea zenbait gradu eta graduondokok lehenesten dituzte, baina maila txikiagoan, eta beste batzuen parte dira, zeharka.

Azkenik, artisautzaren presentzia oso txikia da. Modari dagokionez, horren presentzia ere ia hutsaren hurrengoa da, baina, kasu honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateak bultzatutako gaitasunetako baten lehentasuna da.



7. irudia. Ikastegiek lehenesten dituzten kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta lurralde historikoaren arabera

	Sektoreari buruzko programak (%)	Zein ikastegitan duten eragin handiena	% Lehentasuna	Zein ikastegik lehenesten duten
Kultura ondarea	**%18**	· Musikene · UPV/EHU Letrak	**%19**	· Musikene · UPV/EHU Letrak · UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Arte Ederrak · UPV/EHU Farmazia ·Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak
Ikusizko arteak	**%10**	· UPV/EHU Arte Ederrak · Digipen	**%41**	· UPV/EHU Arte Ederrak · Digipen · Deustuko U. Ingeniaritza
Ikus-entzunekoa eta multimedia	**%10**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak	**%35**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea · UPV/EHU Arte Ederrak · UPV/EHU Letrak · Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak
Musika	**%10**	· Musikene	**%90,5**	· Musikene · MU Empresagintza
Liburua eta prentsa	**%9**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Letrak	**%16**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Letrak
Diseinua	**%9**	· Kunsthal · Deustuko U. Ingeniaritza · ID arte · Tecnun	**%60**	· ID arte, Kunsthal · Deustuko U. Ingeniaritza · UNAV Tecnun · UPV/EHU Ingeniaritza · MU Politeknikoa · UPV/EHU Informatika · Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak
Hizkuntzaren industriak	**%9**	· UPV/EHU Informatika · UPV/EHU Letrak	**%62**	· UPV/EHU Informatika · UPV/EHU Letrak · MU Humanitateak
Arte eszenikoak	**%7**	· Musikene · UPV/EHU Arte Ederrak	**%7**	· UPV/EHU Arte Ederrak
Goi gastronomia	**%5**	· Basque Culinary Center	**%100**	· Basque Culinary Center
Bideo jokoak	**%4**	· Digipen · Deustuko U. Ingeniaritza · UPV/EHU Informatika	**%22**	· Digipen · Deustuko U. Ingeniaritza
Arkitektura	**%3**	· UPV/EHU Ingeniaritza	**%37**	· UPV/EHU Ingeniaritza · ID arte · Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak
Publizitatea	**%3**	· Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak	**%17**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak
Artisautza	**%3**	· Deustuko U. Ingeniaritza	**2%**	
Moda	**%1**	· UPV/EHU Arte Ederrak	**%100**	· UPV/EHU Arte Ederrak

2. taula. Kultura eta sormen azpisektoreak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan

Balio katearen zein fase azpimarratzen du goi mailako hezkuntzak?

Galdera horri erantzuteko, gaitasunen arduradunei eskatu zitzaien programa bakoitza balio katearen fase batean kokatzeko, kontuan hartuta programaren prestakuntza, ikerketa edo transferentzia zein fasetan sustatzen den. Horretarako, Kulturaren Euskal Behatokiak (2018) ezarritako kultura eta sormen industrien balio katean oinarritu gara. Honako arlo hauek osatzen dute:

- Hezkuntza
- Sorkuntza
- Ekoizpena/Edizioa
- Banaketa/ Merkaturatzea/Zabalkundea
- Kontserbazioa
- Kudeaketa eta erregulazioa

Berriz ere, gai hori planteatu zen ulertuta unibertsitateko gaitasun guztiek konpetentziak balio katearen hainbat fasetan garatzen lantzen. Hori dela eta, lehentasunezko helburuen araberako hurrenkera bat ezarriz erantzun zitzaion alderdi horri. Hezkuntzan kontzentrazio handia ikusten da, hau da, energia handia dago kultura eta sormen industrien hezkuntza arloan trebatzen eta ikertzen, eta, hala, hein handi batean, prestatzeko prestatzen da.

Balio katearen gainerako faseak banatuago daude lehentasunei dagokienez; edonola ere, sorkuntza eta, neurri txikiagoan, ekoizpena eta edizioa nabarmentzen dira (liburu eta prentsako ekoizpen gisa ulertuta).

Ikus dezakegunez, lehentasunen kontzentrazio edo banaketa maila gorabehera, balio katearen fase hauek azpimarratzen ditu gehien Goi Mailako Euskal Hezkuntzak: hezkuntza, sorkuntza eta ekoizpena.



8. irudia. Programen banaketa, KSlen balio kateetan duten eraginaren arabera

[12] Kulturaren Euskal Behatokia (2018). Kontzeptuak zehaztea eta Euskadiko KSletako sektoreen definizioa. Eusko Jaurlaritza

Taula honetan ikus daitezke
(zutabeen hurrenkeraren arabera):

- Balio katearen fase hori azpimarratzen dutela adierazten duten programen ehunekoa (graduak, graduondokoak, doktorego programak, ikertaldeak, institutuak).
- Balio katearen fase hori gehien azpimarratzen duten ikastegiak, leheneste maila edozein dela.
- Balio katearen fase hori berariaz lehenetsi duten ikastegiak.

Programak (%)		Zein ikastegitan duten eragin handiena	% Lehentasuna	Zein ikastegik lehenesten duten
Hezkuntza	**% 31**	· Musikene · Kunsthal · UPV/EHU Bellas Artes · UPV/EHU Informática · MU Basque Culinary Center · UPV/EHU Letras · ID arte	**% 90**	· Musikene · Kunsthal · UPV/EHU Arte Ederrak · UPV/EHU Informatika · MU Basque Culinary Center · UPV/EHU Letrak · ID arte · Digipen · UNAV Tecnun · UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Farmazia · Deustuko U. Ingeniaritza · Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak
Sorkuntza	 **% 23**	· UPV/EHU Arte Ederrak · Deustuko U. Ingeniaritza · MU Basque Culinary Center	 **% 28**	· UPV/EHU Arte Ederrak · Deustuko U. Ingeniaritza · MU Basque Culinary Center
Ekoizpena / Edzioa	**% 15**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · Deustuko U. Ingeniaritza	**% 13**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · Deustuko U. Ingeniaritza · UPV/EHU Arte Ederrak · Basque Culinary Center
Banaketa Merkaturatzea Zabalkundea	 **% 14**	· Deustuko U. Gizarte eta Giza Zientziak · MU Basque Culinary Center · Musikene	**% 0,3**	· Musikene
Kontserbazioa	 **% 10**	· Musikene · UPV/EHU Letrak	**% 9**	· UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Arte Ederrak
Kudaeketa eta erregulazioa	 **% 7**	· UPV/EHU Letrak · MU Politeknikoa	**% 8**	· MU Politeknikoa

3. taula. Balio katearen faseak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan

Nola erlazionatzen dira identifikatutako prestakuntza, ikerketa eta transferentzia gaitasunak 2030 Agendako indar eraldatzaileekin?

Hemen zera aurkezten da: Goi Mailako Euskal Hezkuntzan identifikatutako gradu, graduondoko, ikertalde eta abarrek 2030 Agendak definitutako indar eraldatzaileekin eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak nabarmendutako trantsizioekin duten lerrokatze maila. Hauek dira:

- **Gizartea + Demografia**
- **Energia + Ingurumena**
- **Digitala + Teknologia**

Ikusten dugunez, gaitasun horien % 40 "Gizartea + Demografia" indarrarekin identifikatzen da, eta, ondoren, "Digitala + Teknologia" indarrarekin (% 35). Oso atzetik (% 16), "Energia + Ingurumena" dator.

Hala ere, ezin da alde batera utzi gaitasunen % 9k beren burua ez dutela horren arabera kokatzen. Horretatik ondoriozta genezake kategorizazio hori ez dutela ezagutzen, edo, besterik gabe, ez direla horrekin identifikatuta sentitzen.

Bitxia da, halaber, "Energia + Ingurumena" indarrak hain ordezkaritza txikia izatea, Green Deal eta Europako halako esparruetan lehenesten dela kontuan hartuta.



9. irudia. Programen banaketa, ZTBP 2030 planak nabarmendutako trantsizio globaletan duten eraginaren arabera

	Trantsizioan kokatzen diren programak (%)	Zein ikastegitan duten eragin handiena	% Lehentasuna	Zein ikastegik lehenesten duten
Gizartea + Demografia	% **40**	· Musikene · Deustuko U. Ingeniaritza · UPV/EHU Letrak · Basque Culinary Center · Kunsthal · ID arte	% **70**	· Musikene · Deustu Ingeniaritza · UPV/EHU Letrak · Basque Culinary Center · Kunsthal · ID arte · UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · UPV/EHU Farmazia · Deustuko U. Giza eta Gizarte Zientziak · MU Humanitateak
Digitala + Teknologia	% **35**	· Digipen · Tecnun · UPV/EHU Informatika · Deustuko U. Ingeniaritza · Basque Culinary Center · ID arte	% **65**	· Digipen · Tecnun · UPV/EHU Informática · Deustuko U. Ingeniaritza · ID arte · UPV/EHU Arte Ederrak · UPV/EHU Gizarte eta Komunikazio Zientziak · MU Politeknikoa · MU Enpresagintza · UPV/EHU Letrak
Energia + Ingurumena	 % **16**	· UPV/EHU Farmazia · MU Politeknikoa	% **13**	· UPV/EHU Farmazia · MU Politeknikoa · UPV/EHU Arte Ederrak · UPV/EHU Ingeniaritza
N/A	% **9**	· UPV/EHU Arte Ederrak	% **80**	· UPV/EHU Arte Ederrak

4. taula. Trantsizioak nola dauden ordezkatuta eta lehenetsita Goi Mailako Euskal Hezkuntzan

IED Kunsthal

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIEKIN LOTUTAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO GAITASUNEI BURUZKO DATU EKONOMIKOAK (2019)

Nola finantzatzen dira kultura eta sormen industriekin lotutako unibertsitate gaitasunak?

Jasotako erantzunen arabera, KSIekin lotutako prestakuntzaren eta ikerketaren finantzaketa gehiena publikoa da (% 82). Finantzaketa bide horretan, honako hauek nabarmentzen dira:

- Eusko Jaurlaritzaren ekarpen zuzenak, Hazitek, Bikaintek, Berriker, Elkartek.
- Europako deialdi irekiak: 2020 Ortzimuga
- Bizkaia (DEMA), Gipuzkoa eta Arabako Foru aldundiak
- Nafarroako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernuarenak
- Espainiako Gobernua: MINECO
- Bilbao Ekintza
- Euskal Herriko Unibertsitatearen ekarpena



10. irudia. Finantzaketa bideen banaketa

Bestalde, finantzaketa pribatua % 4 da, eta enpresen eta beste erakunde batzuen aniztasun zabala biltzen du. Funtsean, finantzaketa hori hiru formula motatan oinarritzen da.

1. Alde batetik, banku erakundeei eta haien gizarte ekintzari lotutako fundazioen babesa dugu (BBK, La Caixa, Banco Santander).

2. Bestetik, I+G+B handia duten enpresa txiki eta ertainen, teknologia zentroen, kultura zentroen, hedabideen edo enpresen kontratuak.

3. Azkenik, administrazio publikoek zerbitzuak garatzeko ikerketa eta transferentzia gaitasunak kontratatzen dituzte. Gaitasunen edo programen artean elementu komun gutxi dituen finantzaketa bidea da, eta, beraz, azken bost urteetako kontratazioen batezbesteko bat (43) ezartzea ez da hain adierazgarria; esanguratsuagoa da azpimarratzea aldakortasun heina kontratazio ezetik 200 kontratazio artekoa izan dela 2015-2019ko epean. Gauza bera egiten badugu 2019ko kopuruekin, batez beste 14 kontratazio izango genituzke; baina erreferentzia hori lausoa da, kontuan hartzen badugu urte horretan 0tik 60ra bitarte kontratazio izan zirela. Kontratazio gehien egiten den azpisektoreak musika, goi gastronomia eta hizkuntzaren industriak dira.

Autofinantzaketari dagokionez, lankidetza hitzarmenak, enpresa ikasgelak (Innova, Eurohelp, Sherpa eta BCAM) eta transferentzia kontratuak ditugu. Azkenik, aipatzekoak dira zuzkidura ekonomikoa duten sariak eta ikasleengan eragin zuzena duten beste deialdi ordaindu batzuk.

Nahiz eta hemen ez garen kausetan sartuko, harrigarria da oraindik ere ez egotea jabetza intelektuala aitortzeko mekanismoen bidez lortutako finantzaketarik kulturaren eta sormenaren moduko sorkuntza maila handiko eremu batean.

Mondragon Unibertsitatea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

NAZIOARTEKOTZEA ETA ELEANIZTASUNA

Nola lotzen da nazioartearekin eremu horretako goi mailako hezkuntza?

Kulturarekin eta sormenarekin lotutako Goi Mailako Euskal Hezkuntzako hiru erreferentziak herrialde ezberdinetan dituzte egoitzak. Hauek dira: IED Kunsthal, Europako Diseinu Institutuaren bidez; Digipen Institute of Technology Europe Bilbao, Washingtonen eta Singapurren egoitzak dituena, eta Basque Culinary Center.

Elkarrizketatutako gaitasun gehienek nazioarteko sareetan parte hartzen dute. Bitxia bada ere, ehunekoa txikiagoa da ikerketa eta transferentzia gaitasunei bakarrik erreparatzen badiegu. Ehuneko orokorra apala da, batez ere kontuan hartzen badugu nagusiki nazioartekoak diren zentroen/gaitasunen pisu erlatibo handia.

Honako herrialde hauekin egiten da lankidetzako lan gehien: Frantzia, Erresuma Batua eta Italia; horien ondoren Hungaria, Alemania, Holanda eta Belgika daude.

PARTE HARTZEA NAZIOARTEKO SAREETAN

	Gaitasun guztiak	Ikerketa eta transferentzia gaitasunak
Bai	% 51	% 44
Ez	% 35	% 32
Erantzunik ez	% 14	% 24

5. taula. Nazioarteko sareetan parte hartzearen alderaketa

UPV/EHU, Arte Ederren Fakultatea

Zeintzuk dira lan ingurunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak?

Irudian ikus daitekeen bezala, gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza, bai lan ingurunean (% 57), bai ekoizpen zientifikoan (% 49). Ondoren euskara dator, eta, gaztelania bezala, gehiago erabiltzen da lan ingurunean (% 24) ekoizpen zientifikoan baino (% 21). Ingelesak, frantsesak eta beste hizkuntza batzuk datoz ondoren, urrutira, baina argi ikusten da ingelesa pisua irabazten ari dela ekoizpen zientifikoan, gaztelaniaren eta euskararen kaltetan.

Atzerriko hizkuntzen kasuan, argitu behar da hizkuntzaren erabilerak ez duela modu zehatzean islatzen eskualdeen edo herrialdeen arteko lankidetza harremanen dentsitatea; izan ere, komunikazio hizkuntza ingelesa izatea da joera, baita Akitania Berriarekiko lankidetza gehienetan ere.

HIZKUNTZAREN ERABILERA



- Lan ingurunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak
- Ekoizpen zientifikoan eta akademikoan gehien erabiltzen diren hizkuntzak

11. irudia. Konparazioa hizkuntzaren erabileran

Deustuko Unibertsitatea, Ingenieritza Fakultatea

AS fabrik eraikina, Mondragon Unibertsitatea

Hizkuntzaren erabilera lan ingurunean



12. irudia. Hizkuntzaren erabilera lan ingurunean



	Gaztelania	Euskara	Ingelesa	Frantsesa	Beste batzuk
Oso sarri:	% 71	% 57	% 41	% 16	% 24
Normalean:	% 2	% 24	% 26	% 8	% 5
Ia inoiz ez:	% 27	% 19	% 33	% 76	% 71

6. taula. Hizkuntzaren erabilera lan ingurunean

Lan inguruneko hizkuntzaren erabileran sakonduz gero, ikusten da gaztelania erabiltzen dutenek (% 57) modu intentsiboan erabiltzen dutela nagusiki (% 71), eta talde bat ere badagoela (% 27) gaztelania, erabili arren, oso gutxitan erabiltzen duena. Euskaraz lan egiten dutenen kasuak (% 24), erabilera askotarikoagoa da: oso sarri (% 57), normalean (% 24) eta ia inoiz ez (% 19).

Ingelesa ere (% 10) oso maiztasun desberdinekin erabiltzen da; izatez, oso hurbil daude erabilera oso sarriaren (% 41) eta bakanaren (% 33) ehunekoak. Salbuespenezko erabilera hori nagusitzen da frantsesaren (% 76) eta beste hizkuntza batzuen (% 71) kasuetan; horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: italiera (3 gaitasun), alemana (7 gaitasun), portugesa (gaitasun bat) eta serbiera (gaitasun bat).

Hizkuntzaren erabilera ekoizpen zientifiko eta akademikoan



13. irudia. Hizkuntzaren erabilera ekoizpen zientifiko eta akademikoan



	Gaztelania	Ingelesa	Euskara	Frantsesa	Beste batzuk
Oso sarri:	% 64	% 56	% 48	% 19	% 16
Normalean:	% 10	% 22	% 21	% 11	% 0
Ia inoiz ez:	% 26	% 21	% 31	% 70	% 0

7. taula. Hizkuntzaren erabilera ekoizpen zientifiko eta akademikoan

Orain ekoizpen zientifikoa eta akademikoa ardatz hartuta, gaztelaniaren erabilera (% 49) oso sarri gertatzen da (% 64), eta kolektibo bat ere badago (% 26), gaztelaniazko ekoizpen zientifikoa baduen arren, hizkuntza horretan oso gutxitan ekoizten duena. Ekoizpen zientifiko eta akademikoaren kasuan, ingelesak (% 24) jarraitzen dio gaztelaniari erabileraren intentsitatean. Erabilera hori nahiko modu banatuan gertatzen da erabilera oso sarriaren (% 56), ohikoaren (% 22) eta bakanaren (ia inoiz ez) artean (% 21).

Euskarazko ekoizpen zientifiko eta akademikoa (% 21) ingelesezkoa baino apalagoa da, eta hori ere modu askotarikoan banatuta dago: oso sarri (% 48), normalean (% 21) eta ia inoiz ez (% 31).

Lan ingurunearen erabileran ez ezik, ekoizpen zientifikoan eta akademikoan ere salbuespenezko erabilera nagusitzen da frantsesaren (% 70) eta beste hizkuntza batzuen (% 84) kasuetan; azken horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: alemana (3 gaitasun) –lan ingurunean erabiltzen diren hizkuntzekin kointziditzen duen erabilera urriko hizkuntza bakarra–, latina (gaitasun bat) eta suediera (gaitasun bat).

LANTALDEAK ETA GENEROA

Lantaldeak eta horien osaera

Kultura eta sormen industriekin lotutako gaitasunen edo programen osaera aztertuta, honako hau esan dezakegu:

		OSAERA, GUZTIRA	PRESTAKUNTZA	IKERKETA	TRANSFERENTZIA
Emakumeak	% 48	1.837	1.605 (%42)	163 (%4)	69 (%2)
Gizonak	% 51,5	1.963	1.626 (%43)	205 (%5)	132 (%3,05)
Beste aukera batzuk edo ez-bitarrak	% 0,05	2	2 (%0,05)	-	-
Guztira		**3.802**	**3.233 (%85)**	**368 (%10)**	201 (%5)

8. taula. Lantaldeen osaera

Prestakuntza, ikerketa eta transferentzia kontuan hartuta, nabarmenak dira haien pisuen arteko aldeak. Oro har, Goi Mailako Euskal Hezkuntza osatzen duten gizonen ehunekoa, kultura eta sormen industriei dagokienez (% 51,5), zertxobait handiagoa da emakumeena baino (% 48). Alde hori aztertutako Goi Mailako Euskal Hezkuntzako gaitasun guztietan ikusten da, eta hurrenkera honetan areagotuz doa: prestakuntza, ikerketa eta transferentzia.



14. irudia. Prestakuntza, ikerketa eta transferentzia nola dauden ordezkatuta sexuaren arabera

BERRIKUNTZA ETA TRANSFERENTZIA

Autopertzepzioa, berrikuntzari dagokionez

Prestakuntza eta ikerketa proposamenak

Gradu, graduondoko, ikerketa talde eta institutuek berritzailetzat hartzen dute euren burua. Gaitasun horien % 30ek diote arlo hauetan berritzen dutela gehien: prestakuntza eta ikerketa proposamenetan. Euren burua horrela kokatzen duten gaitasunen artean, musikarekin, modarekin, bideo jokoekin, diseinuarekin eta hizkuntzaren industriekin lotutakoak nabarmentzen dira. Bestalde, euren burua berritzaile gisa kokatzen duten azpisektoreak goi gastronomia, ikusizko arteak eta ikus-entzunezkoa eta transferentzia dira.



15. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa prestakuntza proposamenetan

Metodologia

Euren burua berritzaile sentitzen duten gaitasunen edo programen bigarren esparrua metodologiarena da, baina, kasu honetan, berritzaileak, % 52 zabal bat dira eta gaitasun oso berritzaileak % 12 apal bat.

Beren burua oso berritzailetzat jotzen duten gaitasunen artean, diseinuaren eta musikaren azpisektoreekin lotutakoak nabarmentzen dira; berritzaile gisa goi gastronomia, moda, hizkuntzaren industria eta ikus-entzunezkoen eta multimediaren azpisektoreak ditugu.



16. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa metodologietan

Lan ildoak

Azkenik, % 55ek berritzailetzat edo oso berritzailetzat jotzen dute euren burua lan ildoei dagokienez. Gaitasun horiek, gaiaren aldetik, nagusiki musika, kultura ondarea eta diseinua azpisektoreetara lotuta daude, azpisektore oso berritzaile gisa. Berritzaile gisa kokatzen diren azpisektoreen kasuan, goi gastronomia, publizitatea eta hizkuntzaren industria daude.

Bereziki musikan eta diseinuan kontzentratzen da goi mailako hezkuntzaren berrikuntza gaitasuna, bai lan ildoei dagokienez, bai prestakuntza edo ikerketa proposamenei eta garapen metodologikoari dagokienez. Hizkuntzaren industriak ere nabarmentzen dira azken bi arlo horietan. Azkenik, berrikuntza ere agertzen da goi mailako gastronomiaren arloko prestakuntza eta ikerketa proposamenetan, bai eta goi mailako hezkuntzan kultura ondarearekin elkarrekintzan aritzen diren lan ildoetan ere.



17. irudia. Berrikuntzaren autopertzepzioa lan ildoetan

Berrikuntzaren lehenespena

Lehentasuna berrikuntzari

"Programak edo taldeak berrikuntzari, oro har, zer lehentasun ematen diola esango zenuke?" galderari dagokionez, nabarmentzekoak dira musikarekin, diseinuarekin eta goi gastronomiarekin lotutako graduak, graduondokoak eta ikertaldeak, eta, horien atzetik, ikus-entzunezkoak eta multimedia, ikus arteak, kultura ondarea eta hizkuntza industriak.



18. irudia. Gaitasunek berrikuntza lehenestea

Bakoitzaren gaitasunek adierazten dutenaren arabera, goi mailako hezkuntzatik abiarazitako prestakuntza zein berrikuntza eragile diren proiektuak 9. taulako kategoriekin lotuta daude:

PRESTAKUNTZAREN ETA/EDO PROIEKTUEN SUSTAPENA	GAITASUNAK (%)
Ingeniaritza, diseinua eta bestelako sormen jarduerak	% 24
Langileen prestakuntza eta gaikuntza	% 23
Jabetza intelektualarekin loturiko jarduerak	% 17
Softwarea eta datu baseak garatzea, aktibo ukigarriak eskuratzea (leasinga)	% 10
Marketina eta markaren balioa	% 9
Berrikuntza kudeatzeko jarduerak	% 7
Ez du erantzuten	% 6
Ez du prestakuntzarik edo proiekturik sustatzen aipatutako jarduera horietan.	% 4

9. taula. Berrikuntza arloak Goi Mailako Euskal Hezkuntzatik abiatuta

Euskal Goi Mailako Hezkuntzaren ekarpena berrikuntzari KSIetan

Bultzatzen duten berrikuntza tipologiari dagokionez, gehienek gizarte berrikuntzaren testuinguruan ikusten dute euren burua (% 43). Izan ere, balio publikoa sortzen dute produktu, zerbitzu edo prozesu berrien edo hobetuen bidez, zeinek kultura ondarerako sarbidea, ulermena eta harekiko konpromisoa hobetzen baitute, bai eta haren bidezko gizarte eraldaketa ere.

Gehien aukeratutako aukeren artean bigarrena (% 29) kultura eta sormen industrietako enpresen berrikuntza bultzatzea da, berrikuntza jarduerak babestuta (I+G, diseinua, kudeaketa, prestakuntza, softwarearen diseinua, etab.), sareko enpresek produktu, zerbitzu edo negozio prozesu berriak edo hobetuak sor ditzaten, eta inplementatu eta merkatuan sar ditzaten.

Azkenik (% 23), KSIak beste ekoizpen sektore batzuetarako berrikuntza jardueren sektore hornitzaile gisa dauzkate, diseinu, marketin eta bideo jokoen azpisektoreen eta beste sektore batzuen arteko harremana bultzatuz, sektore horietan berrikuntza sustatzeko.

	Gaitasunak (%)	1. Lehentasuna
(1) KSIen bidez balio publikoa sortzea: kultura sorkuntzarako eta kudeaketarako sarbidea, eta horien ulermena eta konpromisoa hobetzea, bai eta horren bidez gizartea eraldatzea ere (gizarte berrikuntza)	% 43	% 80
(2) KSIetako enpresetan berrikuntza sustatzea (enpresa berrikuntza)	% 29	% 88
(3) KSIak sustatzea, beste ekoizpen sektore batzuetarako berrikuntza jardueren sektore hornitzaile gisa	% 23	-
Ez du aplikatzen	% 5	-

10. taula. Gaitasunek KSIetan berrikuntzari egiten dioten ekarpena, eraginaren eta lehentasunaren arabera

Alde batera utzita unibertsitate gaitasunek nola hautematen duten kultura eta sormen industrietan berrikuntzari egiten dioten ekarpena, euren burua enpresetako berrikuntza sustatzaile gisa hautematen duten gaitasunek (2) eta euren burua KSIen sustatzaile gisa –beste sektore batzuetarako berrikuntza hornitzaile izan daitezen– ikusten dutenek (3) KSIko sektoreen arteko lankidetza berrietan duten eginkizuna azpimarratzen dute (% 33), eta, ondoren, produktu berrien garapenarekin lotutako prozesuetan duten parte hartzea (% 29). Deigarria da oso ekarpen txikia egiten dutela negozio eredu berriak sortzeko, bai eta promozionatzeko, fidelizatzeko edo saltzeko modu berriak bultzatzeko ere. Hori bera islatzen da haien gaitasunetan. Hala ere, beste ekarpen mota asko daude (% 31), hala nola sorkuntza eta ikerketa zientifiko eta artistikoa, eta gobernantza.



19. irudia. KSIetan gaitasunek berrikuntzan egiten duten ekarpen mota

Bestalde, euren burua KSIen bidez balio publikoaren sortzailetzat duten gaitasunek (1) beren ekarpena faktore hauei lotzen diote:

- **euren berezko balioari (% 42),** esperientzia subjektiboari bere hartan lotua dago, bai eta hazkunde intelektualaren eta sormenaren garapenaren ikuspegitik duen balioari (dimentsio kognitiboa), zubi sozialak sortzeari (dimentsio komunitarioa) eta haien identitate zentzuari (ondare dimentsioa) ere.
- **beren balio instituzionalari (34%)**, balio partekatuak sortzeari lotua, eta, azkenik.
- **balio instrumentalari (24%)**, ekonomian, gizartean, ingurumenean eta transferentzian ondorioak dituena eta beste ekonomia, gizarte eta ingurumen sektore batzuetan eragina duena.

Goi Mailako Hezkuntzak KSIen enpresa/produkzio esparruari egiten dion transferentzia

Kasu honetan, katedrei, institutuei eta ikasgelei ez ezik, prestakuntza eta ikerketa gaitasunei ere (graduak, graduondokoak, doktorego programak, ikertaldeak) galdetu diegu 2019an zer ezagutza transferentzia egin zuten enpresa eremura. % 41ek adierazi zuten ez zutela transferentzia jarduerarik egiten, % 33k baietz, eta % 26k ez zioten erantzun galderari. Berriz ere, transferentzia maila baxua ageri da. Lehen ikusi dugu goi mailako hezkuntzatik kultura eta sormen industrietarako transferentzia egiteko organo gutxi dagoela (% 3); behintzat, zuzenean edo esklusiboki horretara bideratuak. Bestalde, transferentzia hartzen badugu zentroen lan transbertsal posible gisa, gaitasunak azterturik (graduak, graduondokoak, doktorego programak, ikertaldeak), berriz ere transferentzia eskasa dela ondorioztatzen dugu, eta, horretaz gainera, erantzun gabekoen ehuneko handi bat aurkitzen dugu.

Transferentzia lana adierazi duten gaitasunei gehien lotzen zaizkien KSIen azpisektoreak goi gastronomia eta diseinua dira. Nolanahi ere, elkarrizketatutako gaitasunek ematen dituzten transferentzia jardueren multzoak honako hauek biltzen ditu:

- Noizean behingo lankidetza jarduerak (adibidez, berrikuntza eraldatzaileko hiri laborategiak, enpresen, erakundeen eta/edo gizarte erakundeen eskutik)
- Lankidetza akademikorako programak, hala nola enpresan borondatezko kanpo praktikak (prestakuntza jasotzen ari diren ikasleak)
- Masterrak unibertsitatetik kanpoko erakundeekin lankidetzan (adibidez, EITB)
- Zuzeneko emanaldiak erakundeekin lankidetzan (prestakuntza jasotzen ari diren ikasleak)
- Esku hartze soziala (adibidez, Zabalduz Kooperatiba Elkartearekin) eta Garapenerako Lankidetza
- Gradu amaierako lanak eta enpresan egindako master amaierako lanak (ikasleak)
- Ikerketa proiektuak eta enpresa berrikuntzarako proiektuak (adibidez, Hazitek)
- Ikerketa eta prestakuntza proiektuak (adibidez, honako hauekin: euskarazko hedabideak biltzen dituen Hekimen elkartea, Euskal Hedabideen Behatokia, Euskal Gizarte Erakundeen Kontseilua, Berria fundazioa, Elkar fundazioa, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartea, Topagunea Euskal Elkarteen Federazioa, Elhuyar fundazioa, Koop. Euskaraz, Association eta EMUN Koop., Tabakalera, EITB, etab.)
- Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoen (ITRB) bidez egindako hitzarmenak (adibidez, Eusko Legebiltzarrarekin)

Sektoreari lotutako transferentzia horri dimentsio sozialago bati lotutakoa gehitu behar zaio, non, besteak beste, honako hauek sartzen diren: kultura ekitaldietan parte hartzea, guneko esku hartzeak, arautu gabeko prestakuntza jarduerak eta bestelako jarduera publiko batzuk. "Partaidetza kantitateaz" hitz egin nahi izanez gero, kasuz kasu hartu beharko litzateke goi mailako hezkuntzako programa bakoitza, aniztasuna handia baita. Hala ere, aipatzekoak dira zenbait elementu nabarmen, hala nola 2015 eta 2019 artean 300 kultur ekitalditan baino gehiagotan parte hartu duten programak, edo, hiru urteko denbora tarte horretan bertan, zenbait programaren parte hartze handia, hala nola 450 txosten, lantegi eta mintegi baino gehiagotan parte hartu dutenak.

- Goi Mailako Euskal Hezkuntzak kultura ekitaldietan parte hartzeak onura gehien ekarri dien KSIen azpisektoreak: Goi gastronomia, musika eta ikusizko arteak.
- Goi Mailako Euskal Hezkuntzak arautu gabeko prestakuntza jardueretan parte hartzeak onura gehien ekarri dien KSIen azpisektoreak: Goi gastronomia, musika, ikusizko arteak eta hizkuntzaren industriak.
- Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren hainbat modutako lankidetzarik handiena duten KSIen azpisektoreak: Musika, goi gastronomia eta kultura ondarea.

Jabetza intelektuala

Gizarte berrikuntzarako joera handiagoa duen transferentzia eredu bat nabarmentzen bada ere, jabetza intelektualaren edo industrialaren erregistroarekin lotutako transferentzia formula batzuk ere erabiltzen dira. Hori batez ere goi gastronomiarekin, ikusizko arteekin, ikus-entzunezkoekin eta hizkuntzaren industriekin lotutako unibertsitate gaitasunetan gertatzen da, eta horien artean egile eskubideen formula nabarmentzen da. Nolanahi ere, eta lehen esan bezala, kopuru txikietan mantentzen da kultura eta sormen industriei lotutako goi mailako hezkuntzaren eremuko jabetzaren erregistroa; hori gertatzen da ez bakarrik beste sektore batzuekiko, baizik eta esparruak horretarako berez duen gaitasunarekiko.

JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA	GAITASUNAK (%)
Egile eskubideak/jabetza intelektuala (jabetza intelektuala)	% 36
Patenteak eta erabilera ereduak (jabetza industriala)	% 24
Beste batzuk (copyleft)	% 15
Markak eta izen komertzialak (jabetza industriala)	% 12
Copyright	% 7
Diseinu erregistroa (jabetza industriala)	% 5
Marrazki/eredu industriala (jabetza industriala)	% 1

11. taula. Gaitasunen banaketa, jabetza intelektualarekin lotutako transferentzia formulen arabera

3

Gaur egungo erronkak

Esplorazio txosten honetan, kultura eta sormen industriak Goi Mailako Euskal Hezkuntzan nola dauden ordezkatuta deskribatzen saiatu gara. Deskribapen hori, era berean, euskal eskola eta fakultateetan dauden graduez, graduondokoez, ikertaldeez eta institutuez arduratzen diren langile guztien artean bildutako informazioan oinarritzen da.

Azterlan honen berrikuntza ez datza bere originaltasunean soilik, aurrez Euskadin ez baita halakorik egin, baizik eta Goi Mailako Euskal Hezkuntza azpisektore kultural eta sortzaileekin modu koherente eta estrategikoan lotzeko ekimenak proposatu ahal izateko duen garrantzian. Horregatik, esplorazio txostenaren azken atal honetan kontuan hartu beharreko lehenengo datua transferentzia maila da. Horren osagarri, horrekin lotutako beste inplikazio edo gai batzuk landuko ditugu hurrengo paragrafoetan.

1 Transferentziara bideratutako lana

Hori, jakina, hainbat faktoreren ondorioa da. Lehenik eta behin, sarritan uzten da hau alde batera: KSIekin zerikusia duten eta Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren testuinguruko 20 ikastegiek sustatzen dituzten 160 programetatik % 3 baino ez dira bideratzen soilik kultura eta sormen sektoreko transferentzia lanetara. Horren azpian dago sektoreko erakundeekiko konexioa sustatzen duten sailak edo talde laguntzaileak bultzatzeko beharra.

Transferentzia ehuneko hori (% 3) oraindik txikiagoa litzateke, transferentzia erakunde transbertsalak kontuan hartuta –hau da, KSIen espezifikoak ez direnak–, eta gauza bera ikertaldeak kontuan hartuko bagenitu ere; izan ere, ikertaldeek enpresari zerbitzuak ematen dizkiote, beren helburu nagusien artean nahitaez hori ez badute ere. Prestakuntza eta ikerketa gaitasunen % 41ek adierazi zuten ez zutela transferentzia jarduerarik egin 2019an. Horregatik, oso garrantzitsua da transferentziaren aldeko apustua egitea, horretarako programak bultzatuz, baina baita jarduerak eta sailak egituratuz ere, kudeaketa informala gainditzeko. Identifikatutako lehen erronka horri jada heldu dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, beste sail batzuekin koordinatuta (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, esaterako). Agerikoa da Euskadiko testuinguruan prestakuntza eta ikerketa aberastasun handia dagoela KSIei dagokienez.

2 Diziplinen arteko aldeak (azpisektoreak)

Prestakuntzak, ikerketak eta/edo transferentziak ezein azpisektorerik baztertzen ez badute ere, badaude Goi Mailako Euskal Hezkuntzak gehiago sustatzen dituen azpisektoreak, hala nola musika, hizkuntzaren industriak, goi gastronomia eta diseinua; aldiz, artisautza, argi eta garbi, baztertuta dago. Azterketa honen bigarren fasean, alderatu genitzake Goi Mailako Euskal Hezkuntzako azpisektoreen banaketa (ikus 25. orrialdea) eta enpresa edo elkarte jarduerako azpisektoreen araberako banaketa. Ariketa horrek aukera emango luke KSIen esparruko gure transferentziaren kantitatea eta kalitatea hobeto zehazteko eta definitzeko, eta informazio gehiago emango luke transferentzia jarduerak azpisektore batzuk beste batzuen aurretik lehenetsita eta hiru lurralde historikoetako bakoitzean azpisektore indartsuenak bereizita bideratzearen egokitasunari buruz.

3 Eragin heterogeneoa balio katean

Prestakuntzaren eta ikerketaren zati handi bat kulturaren industrien hezkuntza arlora bideratuta dago (% 31).

Balio katearen gainerako faseak modu banatuagoan azpimarratzen dira; nolanahi ere, sorkuntza (% 23) eta, neurri txikiagoan, ekoizpena eta edizioa (% 15) nabarmentzen dira. Banaketak, merkataritzak eta zabalkundeak (% 14), kontserbazioak (% 10) eta kudeaketak eta erregulazioak (% 7) ehuneko txikiagoak dituzte, baina ez da hori gauzarik nabarmenena eta, printzipioz, ezta arazo bat ere, baizik eta prestakuntza eta ikerketa programek ez dituztela ia lehenesten balio katearen fase horiek.

4 Berrikuntza maila baxua (autopertzepzioa)

Programen % 24k baino ez dio lehentasun handia ematen berrikuntzari. Prestakuntza eta ikerketa proposamenak dira Goi Mailako Euskal Hezkuntzan bere burua berritzailetzat neurri handienean hartzen duen arloa. Ondoren, metodologiak daude, eta, azkenik, lan ildoak. Hiru arloetan musika eta diseinua nabarmentzen dira; berrikuntza metodologikoaren kasuan, modarekin, bideo jokoekin eta hizkuntzaren industriekin lotutako programak edo gaitasunak gehitu behar ditugu, eta, lan ildoen kasuan, kultura ondarea.

Autopertzepzio horrek eragina izan dezake gaitasunak sektoreko erakundeetara hurbiltzeko orduan, bai eta sektoreak goi mailako hezkuntzari buruz duen pertzepzioan ere.

5 Beharbada ez datoz bat sustatzen den berrikuntza eta KSIak bereganatzen duena

Programen % 43k gizarte berrikuntzaren esparruan mugatutako berrikuntza sustatzen du, balio publikoa sortzen baitu. Ildo horretan, errentagarritasun ekonomikoa bilatzea ez da lehentasunezkoa izango, eta, kasu askotan, ez da proiektuak bultzatzeko baldintza izango. Hain zuzen, gizarte berrikuntzan eragina duten programa horien % 24k baino ez dituzte ekonomian, gizartean edo ingurumenean ondorioak sortzen, sektore honetan edo beste batzuetan eragina dutenak. Hasierako % 43 horren aurrean, programen % 52k diote sektoreko enpresetan berrikuntza bultzatzen dutela edo KSIei laguntzen dietela, beste ekoizpen sektore batzuetarako berrikuntza jardueren sektore hornitzaile gisa –diseinu, marketin eta bideo jokoen azpisektoreen eta beste sektore batzuen arteko harremana bideratuz, sektore horietan berrikuntza bultzatzeko–. Laburbilduz, Goi Mailako Euskal Hezkuntzan kulturaren balio berezkoa edo instituzionala bultzatu nahi duten programen multzo bat dugu eta helburu instrumentalagoa duen beste talde bat. Sektorea bera helburu hartuta analisi horrek zer emaitza dituen ikusteko, beste faktore asko aztertu behar lirateke. Nolanahi ere, horrek esan nahi du heterogeneoa dela prestakuntza eta ikerketa proposamenen multzoa, eta KSIak erantzun egin behar duela, bai modu pribatuan bai instituzionalean.

6 Ikusgarritasun eskasa testuinguru publikoetan duen parte hartzeari dagokionez

Goi Mailako Euskal Hezkuntzan ditugun gaitasunek, bereziki kulturaren eta sormenaren testuinguru honetan, jarduera publiko handia dute: kultura ekitaldiak, lantegiak, mintegiak, hitzaldiak, eta abar. Jarduera hori unibertsitatearen eremura mugatzen da askotan, sektorean hedapenik izan gabe edo bertan integratu gabe; horrek murriztu egiten du haren konexio eta inpaktu gaitasuna. Bestalde, elkarrekintza horiek dituzten kultura eta sormen azpisektore batzuek bakarrik baliatzen dituzte jarduera horiek. Ondorioz, beste azpisektore batzuk alde batera geratzeaz gain, zabaltzeko eta parte hartzeko gaitasuna ere murriztuta dago, eta horrek pertsona asko kanpoan uzten ditu.

Halaber, badirudi beharrezkoa dela balioa ematea goi mailako hezkuntzak sustatutako edo bultzatutako ekoizpen zientifiko, kultural eta artistikoaren parte bati. Adibidez, kultura eta sormen industriekin lotutako ikerketa beste eremu batzuetatik –hala nola kulturatik edo teknologiatik– zabaltzeko baldintzak erraztu litezke, sektorerako balio handiko ezagutza baita.

7 Jabetza intelektualaren trakzio ekonomiko eskasa

Jabetza intelektualaren edo industrialaren erregistroa ere sektore batzuetan kontzentratuta ageri da. Puntu honetan, garapen optimoa eragozten duten elementuak zein diren identifikatzeko, azterketa handiagoa behar litzateke; faktore hauei lotutako elementuak izan litezke, batzuk aipatzearren: lege kontuak, irisgarritasuna, ezjakintasuna, desinformazioa. Era berean, beste zenbait elementuren potentzialtasuna nola areagotu ere aztertu behar litzateke.

